

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/4/15 | 342

- Alvaro Usabiaga eta Maria Guilia Di Carlo
- Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia
- Sendabelarreko ezagutza Anoetan
- Koxkl: Egiak edo usteak?
- Kultura: Eider Rodriguez

Tolosaldea dantzan



3 hilabetetik 16 urte arte

JANTZIAK OSKI oiñetakoak

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

CITROËN C4

BERRIA
E-HDI TEKNOLOGIA MIKRO-HIBRIDOAREKIN



POSITIVE POWER.
CITROËN C4 VTI BERRIA
12.950€*TIK

KONTSUMO HESTOA L/KM / CO2 EMISIOA G/KM: C4
BERRIA: 4.2-6.4 / 109-149

*Guztiek. C4 Vti 1.4 95 Business berria (berria) zuzenean eta lehenengotik berria) 6.000€-ko kapital minimoarekin 60 nantziatuko duten partikularen zuzenduta eta finantziatze minimoak 30 hilabete itzulpen dituzten. Hilabete bukatzeraino Banque PSA Financieren bitartez. Beharrenez ez gaituzte. www.citroen.es orrian kondizioak kontsultatu. Modeloa, Citroën C4 Exclusive berria.



IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOIKK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Tolosaldea dantzan

Datorren apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da munduan barrena. Honako erreferentzia hartuta eskualdeko dantza taldeekin bildu nahi izan da Galtzaundi lanbide eta zaletasun hau hobeto ezagutu ahal izateko. Dantza taldeek eskuarteetan dituzten lanak eza-gutzeko parada hurrengo lerroetan.

8-11. orrialdeak

Iñaki Mezquita Aranburu (Alegia, 1959) argazkigintza eta naturaren maitale amorratua. Legorretako eskolako irakaslea da duela 17 urte. Bakarkako zaletasunak ditu: korri egin, mendian ibili, argazkiak atera eta gitarra jo.

Iñaki Mezquita

14-16. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Alvaro Usabiaga eta Maria Guilia Di Carlo	4-5
	Normalizazioa: Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia	6-7
	Eskualdeko albisteak: Sendabelarreko ezagutza Anoetan	12-13
	Koxk!: Egiak edo usteak?	17
	Kultura: Eider Rodriguez	18-19

Guraso eta seme alaben arteko komunikazioa



Alvaro Usabiaga
Lahar Elkargoa. Eskuhartze psikosozialerako elkartera

Guraso eta seme alaben artean komunikazio ona izatea beharrezkoa da. Komunikazio onak harremanak bultzatzen ditu, errespetu eta maitasuneko giro bat sortuz.

Pertsonen arteko harremanetan elkarriketa garrantzitsua bada, are gehiago familia barneko komunikazioan. Komunikazioak besteekin harremanetan jartzeko aukera ematen digu, gure artean informazioa eman edo jasotzeko eta horrela gure sentimenduak eta ideiak adierazteko.

Gizakion arteko komunikazioa modu ezberdinetan suertatu daiteke. Horrela, ahozko komunikazioa (ahoz eta idatziz esaten duguna) eta ez ahozkoa (begirada, keinuak...) desberdindu ditzakegu. Gure seme alabek gure mezua garbi jaso dezaten, bai ahoz dioguna eta baita gure ez ahozko komunikazioa (hitz egiterakoan

erabilitako tonua, keinuak...) uztarturik joan behar dute. Bi komunikazio hauen artean aurkakotasuna badago, seme-alabengan nahasmena sor dezakegu, gureganako konfiantza galaraziz.

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioan gure jarrerak ere eragin handia dute, horrela umearen beharrik kontutan hartu gabe oihuak eta mehatxuak erabiltzea ("gela txukundu edo ikusiko duzu", "etorri hona!"), errua sentiaraztea (etengabe hizkuntza negatiboa erabiltzea: "hori ez egin mina hartuko baituzu", "oso traketsa zara"...), umeek egiten edo esaten dutenari garrantzia kentzea ("ez da hainbestekorako izango", "ez kezkatu"...), hitzaldiak ematea ("...egin beharko zenuke") edota orokortasunak erabiltzea ("inoiz ez dituzu arauak betetzen", "beti gaizki portatzen zara"...). bezalako jarrerak komunikazio hori oztopa dezakete, ez baitute umea baieztatzen.

Guzti honen aurrean, gure seme-alabekin komunikazioa hobetzeko lehenengo pausua gure komunikazio estiloaren jabe izatea da.

Bestalde komunikazio hau hobetzen lagun gaitzaketen beste tresna (jarrera) batzuk ondorengoak izan daitezke:

- Prest egon: guraso eta seme-alabak egunean zehar elkarrekin egon eta hitz egiteko denbora bat izatea, nahiz eta denbora gutxi izan, beraien arteko

harremana indartzea ekarriko du.

- Entzuten jakitea: gure seme-alabek esaten digutena modu aktiboan eta arretaz entzuteak, beraiengan entzunak eta onartuak direla-aren sentsazioa suposatuko du.

- Enpatia eta maitasuna adieraztea: haien lekuan jarri, bere sentimenduak ulertzen dituzuela jakinaraziz. Nahiz eta batzuetan ez egon guztiz ados.

- Eredu on bat izatea: umeek gurasoen portaerez hauek diotenez baino gehiago ikasten dute (imitazioz jokatzen dute), beraz guk etxean erabili eta hartutako jarrerak eredu izan behar dute gure seme-alabentzat.

- Positibo izatea: hizkuntza baikorra erabiltzeak umearengan eragin positiboak sortaraziko ditu.

- Parte-hartzea sustatzea: galderak eginaz eta gai ezberdinei buruz beraien iritzia eskatuz.

Bidea zaila bada ere, estrategia hauen erabilerak gertutasun, harmonia eta ulermen giro bat sortzeko laguntza izan daitezke, guraso eta seme alaben arteko harremanak sendotuz eta gurasoek dugun etengabeko lanean lagunduz.

Bereizkeriara ohitzea

Bertakoen ikuspuntutik, -integrazio prozesuaren parte direnak, integrazio prozesua noranzko bikotzat ulertuz gero-, erreakzioak ezberdinak dira: gizartea ez dago beti prestaturik gaur egun heltzen diren atzerriarrak 'aterpetzeko'. Aurretik aipatutako giza-ekonomia alor horietan, bertakoen eta migratzaileen arteko hartu-emanak sortzen dira. Sortutako giza-erlazioek askotan elkartutako bi 'kultura' horien artean gatazka sortzen dute.

Hala ere, integrazioa egunerokotasunera eramanda, desberdin ikus daiteke. Gehienetan migratzaileari integrazteko, parte hartzeko, tokiko kultura onartzeko eskatzen zaio; bere ohiturak, erlijioa eta gastronomia ulertzeko modua kritikatu egiten dira, guztiak lapikoa berdinean sartuz... Metroan mutil magrebiari botatzen zaion begirada, kalean emakume beltzari edo burua zapi batez estalia duenari... Behin eta berriz azaldu eta errepikatzen diren topikoak dira. Nire buruari egoera honetara 'ohitu' ote diren galdetzen diot. Normala al da gaitzespena, arrazismora, bereizkeriara ohitzea? Normala al da SOS Arrazakeriak burututako testing-ean parte hartu duten gazteek tabernetan¹ maiz bereizkeria jasaten dutela esatea? Ez, nire ustetan. Anormala da. Anormala litzateke bereizkeria hau jasaten duten pertsonak ondo integraturik egotea, integrazteko eskatzen dien eta integrazten uzten ez dien gizarte honetan.

Sozializazioari buruz hitz egin nahiko nuke, izan ere ezinbestekoa da integrazioaz hitz egiterako orduan. Soziala gure egunerokotasunarekin lotuta dagoena da. Azokara, tabernara, liburutegira joatea, pentsatu gabe burutzen ditugun ekin-tzak dira. Hauek zenbait kasutan benetako oztopo bilakatu daitezke, bereziki migratzaileak "hazpegi oso zehatz edo bereziak" dituenen.

Giza erlazioak sortzen diren tokietan sareak sor ditzakegu. Atzerriarrok askotan ez dugu ez amarik, ez aitarik, ez anai-arrebarik, ezta lagunik ere. Adiskidetasun begirada, hitz, irribarre, keinu baten bila ateratzen gara kalera; honek bidea emango baitigu ondo bizitzeko toki bat birsortu dezakegula sinisteko. Ondo bizi esaten dudanean, bizi kalitateaz ari naiz, ez soilik ekonomikoaz, baita sozialaz ere. Migratzaileok gizarte berri batean aurrera egin behar dugu, harremanak egiteko ahalginak eginez, gehien bat bakarrik heltzen garenean. Baina ahalegin hori gurekin batera bertakoek ere egin behar dute. Izan ere, bertakoen aldetik aldeztu aurretiko pretutasunak ikusten ez badut, zer gogo izango dut behin eta berriz saiatzeko?

Berrito ere egiaztatu ahal izan dugu afrikan gazteak tabernetan baztertuak direla; tabernetara ondo pasatzera, gizartekotzera, ligatzera, tragoxka bat hartzera goaz... Tabernetan edonor sar daiteke, haiek izan ezik. Zer nolako sentimendua izango dute pertsona hauek? Hurrengo ostiralean ateratze-



Maria Giulia Di Carlo

Deusto Unibertsitateko Ikertzailea eta Bakeaz-eko kolaboratzailea

Integrazioari buruzko kontzeptu batzuen inguruan hausnartu nahi dut; jatorrizkoarentzat zein atzerriarrentzat integrazioak zer esan nahi duen, alegia. Integrazioak, etimologikoki zentzu soziologikoan, bizi garen gizartearen parte izatea esan nahi du. Prozesu honen bitartez "pertsona gizar-teak onartuta bertako partaide bihurtzen da". Integrazioak migratzaile baten bizitzako arlo ezberdinak hartzen ditu bere gain: lana, etxebizitza eta gizar-tea zein kultura. Alor hauek askotan bereizkeria eta bazterketarako gune izaten dira.

ko gogorik izango al dute edo etxean geratuko dira, begirada arrazistengatik eta aurreiritzi orokor horietatik ihesi? Nekatu-ta egongo dira behin eta berriz saiatu izanaz, arrazismoaren aurrean aurpegia eman izanaz... Izan ere, erantzun gisa, behin eta berriz, 'migratzaile zopa' be-


rotua jaso dute, krisi madarikatu honen aurrean bekataria topatu nahian. Honek herrialde garatuak azpigaratu bilakatu ditu, izan ere Amartya Senen antzera, ez dago garapenik demokrazia-rik gabe, eta hemen, nire ustez, demokrazia baloreen krisialdian murgildurik gaude.

¹ http://www.sosracismo.org/index.php?option=com_content&view=article&id=161%3Ademostramos-discriminacion-racista-en-bares-de-bilbao&catid=8%3Acriminalizacion&Itemid=13&lang=es
<http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20110307/pvasco-espana/este-entran-negros-moros-20110307.html>
<http://periodismohumano.com/sociedad/discriminacion/aqui-no-entran-negros-ni-moros.html>

6

Datorren astelehenean, apirilaren 18an, errenta aitortpena egiten hasteko kanpaina abiatuko da. Zergadunek ekainaren 25a arte izango dute urteko zerga-betekizuna Foru Aldundiarekin kitatzeko beta. Aurtengoan lehen urratsetik tramitea euskaraz egiteko nahia adierazteko eta burutzeko eskubidea izango dute zergapekoek. Baietz 5.000ra iritsi aitortpena euskaraz egiten dutenen kopurua!

Naiara Roldán de Aránguiz



Errenta aitortpena

Kontseilua, Galtzaundi Euskara Taldea, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo Udalak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko –UEMAko– kide diren Tolosaldeko 14 udalerri (Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Orendain eta Oresa) elkarlanean aritu dira ‘5.000 baietz’ izeneko kanpaina abian jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin batera.

‘5.000 baietz’ kanpainak, lemak berak argi adierazten duen legez, aurtengoan 5.000 lagunek baino gehiagok errenta aitortpena euskaraz egiteko helburua du. Horretarako, aipaturiko erakundeek, martxoan 5.000 baietz mezua zabaltzen hasi ziren, zertaz ari ziren azaldu gabe, herritarren atentzioa eta interesa eskuratzeko nahiarekin.

‘Moskeo kanpaina’ honek jendearen arreta eskuratzeko eta informatzeko asmoz 12.000 eskuorri eta 500 kartel banatu ditu. Kanpainan parte hartu duten herrietan –Ibarra, Villabona, Zizurkil, Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama eta Orendain– informazioa etxez etxe banatuko da, euskarazko aukera nola egin azaltzeko. Tolosan, Galtzaundi aldizkariko zein Tolosaldeko eta Leitzaldeko

Hitza egunkariko bazkideei helaraziko zaie. Honetaz gain, informaziorako eskuorria Tolosako eraikin publikoetan ere eskuragarri egongo da.

Honela, iaz errenta aitortpena euskaraz egin zuten 3.800 lagun horien kopurua gailendu nahi da. Aurreko bi deialdien artean 625 lagun gehiagok hartu zuten deklarazioa euskaraz egiteko hautua. 2011. honetan muga hori gainditu daitekeela sinetsita, ekimenaren bultzatzaileek 5.000koan ezarri dute helmuga.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko nahia nola adierazi?

Zergadunek hainbat bide dituzte errenta aitortpena euskaraz egin nahi dutela adierazteko, lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi den modu errazean aukeratu baitaiteke. Esaterako, Foru Aldundiak berak autolikidazio proposamenak etxera zuzenean bidaltzen dituenean; ados egonez gero, berrestekoan euskaraz jaso nahi dela adierazi beharra dago. 902 100 040 telefono zenbakira deituta berretsi daiteke. Bertan, autolikidazio proposamena berresteko aukera eskatu ostean, ondorengo mezua entzungo da: “errentakoekin euskaraz egin nahi baduzu sakatu 1”. Bestetik, internet bidez berresteko orduan, www.gipuzkoa.net webgunean, norbanakoak autolikidazio proposamena

5.000 baietz, a euskaraz egiteko deia

onartzeko atalean sartu, identifikatu, eta ondoren, hizkuntza aukeratu beharra dago.

Azkenik, errenta aitortpena era mekanizatuan, gestoria bidez edo Foru Aldundiaren egoitzara joz ere burutu daiteke. Mekanizatua aukeratuz gero aldez aurretik hitzordua eskatu beharra dago; 902 100 040 telefono zenbakian edo internet bidez, www.gipuzkoa.net webgunean. Modu bietara errenta aitortpena euskaraz egin nahi dela adierazteko aukera dago. Azkenik, gestoria bidez edo Foru Aldundira joz gero deklarazioa ere euskaraz egin daiteke, inprimakiak euskaraz eskatuta.

Elkarlanean martxan jarritako ekimena

'5.000 baietz' kanpaina abian jarritako erakunde ezberdinen ordezkari gisa, Juanlu Aranburuk, Kontseiluko dinamizatzaileak, argi utzi nahi izan du ekintza hau elkarlanean martxan jarritakoa dela. Horrek ematen dio gainera



bere garrantzia, aurrera begira ere beharrezkoa baita tankerako ekimenak elkarlanean antolatzea, herritarra administrazioarekin euskaraz jardutea ohitu dadin.

Juanlu Aranbururen hitzetan '5.000 baietz' kanpainaren bitartez herritarrei gonbitea luzatu nahi zaie gure eskubidea dena indarrean jartzeko; errenta aitortpena euskaraz egiteko deia luzatu du horrenbestez, herritarrek eskubide hau gauzatu dezaten.

Yoana Mendez Gazteluko zinegotziak, beste horrenbeste egin du herritarrek administrazioarekin euskaraz komunika-

tzeko beldurra usatzeko eskatuz: "ez gaude ohituta erakunde publikoetan euskaraz hitz egiteko; orain, errenta aitortpenarekin aukera ona dugu, gure eskubidea indarrean jartzeko".

Ainhoa Etxeberrriak, Tolosako Udaleko euskara zinegotziak, bere aldetik, elkarlana goraipatzeaz gain norbanakoari ere dei egin dio: "denon bultzada behar dugu; hizkuntza hautatzeko orduan euskara aukeratzea garrantzitsua da".

Erronka betetzea denon esku dago beraz. Baietz aurten 5.000-ira iritsi!



**BENTA
ALDEA**
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxes: 943 674 113



**errrotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038



Udaberri, Alurr eta Oinkari dantza taldeak

Tolosaldea dantz^zan

Datorren apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da munduan barrena. Honakoa erreferentzia hartuta eskualdeko dantza taldeekin bildu nahi izan da Galtzaundi lanbide eta zaletasun hau hobeto ezagutu ahal izateko. Dantza taldeek eskuartean dituzten lanak ezagutzeko parada hurrengo lerroetan.

Naiara Roldán de Aránguiz

Dantza munduaz, euskal dantza tradizional eta garaikideaz mintzatzeko bildu da Galtzaundi Udaberri Dantza Taldeko Irati Hartsuagarekin, Alurr Dantza Taldeko Eli Nosellasekin eta Oinkari Dantza Taldeko Alazne Gurrutxagarekin.

Udaberri Dantza Taldea

Udaberri Dantza Taldeak euskal dantza tradizionala garatzen du. Duela 55 urte sortutako taldean, sorreratik gaur egun arte aldaketa nabarmenak eman direla zehazten du Iratik, gehiago esanda, nesken paperari

erreferentzia egin nahi izan dio: “neskei “florero” papera kentzeko lana egin behar izan da orain duten mailara iritsi ahal izateko.” Talde barruan nesken papera eguneratzeaz gain, euren xede artean ikerketa historikoak garatzea, bertako dantzak kanpoan



erakustea eta dantza dantzari-entzako soilik ez dela baieztatzea daude.

Aipaturiko helburuak eskuratzeko beste ondorengo ekintzak lantzen dituzte: dantza eta jantzi tradizionalak berreskuratzea -Bordon-dantzako mutilen buruko zapia, Berastegiko San Juan dantzak-, Europan barrera bertako dantzak erakustea, haurren eta helduen ikastaroei garrantzia ematea eta dantza gizarteratzeko nahiaz, "herrikoa eta herriarena dela ikusarazteko", Dantzari Txikia eta Erromeria bezalako ospakizunak antolatzea.

Alurr Dantza Taldea

Ibarra erreferentzia duen dantza taldea da Alurr, 1995ean abian jarritako talde gaztea. Eli Nosellas lehendakariak aitortutakoaren arabera, hasieran dantza talde tradizionala izan zen: "beti euskal dantza tradizionalan oinarritzen gara". Filosofia hau haur hasiberriekin argi dute: "adin bat arte gazte guztiak euskal dantza tradizionalan aritzen dira, oinarri hori jasotzen dute".

Ondoren, ordea, adin batera helduta, garaikideari ekiten diote: "izan dugun aukeragatik eta gazteen eskaeragatik uztartu egiten ditugu garaikidea eta klasikoa".

Lehendakariaren hitzetan tradizionaletik garaikidera pausua emateko, tradizioa galdu gabe, bizitza bera hartu dute erreferentzia: "ez da atzekoa ahaztu behar, baina aurrera egin beharra dago; momentuan momentukoa aprobetxatuz". Garaian egotearen garrantzia azpimarratzen du Eli Nosellasek, horretan taldeko gazteek zer esana badutela aipatzen du: "gazteek estilo uztarketa eskatu dute, teknika aldetik askoz preparatuago datoz; hori bultzatu eta aprobetxatu behar da".

Oinkari Dantza Taldea

Oinkari Dantza Taldea 1975an sortu zen, Villabonan; Euskal Herriko dantzak jaso, ikasi eta erakusteko asmoz. Gaur egun ordea, honako hau ahaztu gabe, Alazne Gurrutxagak zehazten duen moduan: "azken aldian, garaiak aldatuz doazenez, Edu

Muruamendiarazekin hasi garen momentutik, Oinkarik ez du %100ean behintzat dantza tradizionala esan nahi. Garaikidetasunera eman dugun salto hori dela eta, pausu tradizionalan oinarritutako koreografiak eginez, euskal dantzen kultura ikusleari transmititzea bihurtu da".

Dantzaren Nazioarteko Eguna

Eskualdeko dantza taldeen ordezkaritza hartuta luzatutako lehen galdera Dantzaren Nazioarteko Egunaren ospakizunaren garrantziarena izan da. Udaberriko Irati Hartsuagaren ustetan horrelako egunak sinbolikoak baino ez dira: "indarra galdu du hasiera batean izan zezakeen garrantzi horrek. Dena den, eguna existitzeak berak erakusten du noizbait norbaitek pentsatu zuela Dantzaren Nazioarteko Egun bat izatea garrantzitsua zela dantza mota guztiek giza-kiontzat islatzen duten ondarea gordetzeko eta jakina, hasierako asmo harekin bat gatzoguz ere".

Alurr taldeko Eli Nosellasek argi dauka dantzarekin harrema-



Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

euskararen semaforoa
euskararen semaforoa
blogspot.com



jarri zure publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



na duen orok eurentzat garrantzia izango duela eta bestetik, Oinkariko Alazne Gurrutxagak dantza eta dantzariak ezagutarazteko duen balioa aipatzen badu ere eurentzat zuzenean inolako eraginik ez duela izango aitortu du.

Nazioarteko Eguna izateak beraz bere garrantzia izan bai, dantza kontuan izateko balio-garria da, baina eskualdeko taldeei zuzenean ez die eragingo. Dantzaz mintzatzen jarraitu eta

dantzaren inguruko ikuspegi ezberdinak ere badaudela argi geratu da. Elik 25 urte daramatza dantzan barneratuta, dantzak berarentzat duen pisua neurtu ezina da: "dantzak sentimendu ugari adierazten ditu, gauza asko espresatzeko bide da. Sentimendua, identitatea, kultura". Esaldi batean laburbildu du Alur-reko lehendakariak dantzaren esanahia: "bizitza da".

Bide berdinari jarraiki Irati Hartsuagak "gizakiak bere bu-

rua espresatzeko dituen milaka bideetako bat da". Milaka bide horien artean Udaberri Dantza Taldeak euskal dantza tradizionalaren hautua egin du: "batzuetan txiki sentitzen gara, beste estilo batzuek tradizio gehiago dutelako; hala ere, guk gure aukera egina dugu eta beste guztien pare jartzen dugu, ez delako ez gehiago ezta gutxiago ere".

Gaztetxoak, harrobi eta geroa

Oinkari Dantza Eskola 300 bat dantzarik osatzen dute; gaztetxoenen taldea 3 urteko haurrez osaturik dago eta honetaz gain emanaldiak eskaintzen duen talde nagusiaz aparte helduen taldea ere osaturik du Billabonako taldeak. Bertan Edu Muruamendiaraz eta Lurdes Esnaola ardura-tzen dira dantza tradizionalak eta koreografiak erakustez. Taldeko harrobi eta benetako altxor, Alazneren hitzetan, mutilak dira. Izan ere, mutil falta dagoenez Oinkariko harrobian mutilek garrantzi berezia eskuratzen dute, mutilez soilik osatutako emanaldia sortzeraino: "Dantza zak plazan". Alaznek aitortutakoaren arabera gaur egun lorpen handi bezala ulertu beharra dago.

Bestetik, Udaberri Dantza Taldeak gaztetxoenen papera "helduok dantza uztean gure lekukoa hartuko dutenak" bezala ulertzen du. Udaberrik 200 haurren taldea osaturik badu ere gerora begira 30ekoa betetzeak lan handia eskatzen du. Hori dela eta Iratik dio buru belarri dabilzala gazteenengan dantzarekiko zaletasuna sortu nahian: "garrantzitsua da dantzaz gozatzen erakustea, taldeko giroa sortu eta taldean dantza eginez ongi pasa daitekeela erakustea. Horrela baka-rrik jarraituko dute aurrera".

Tradizionala vs. Garaikidea?

Betiko galdera ezin ekidin. Tradizionala edo garaikidearen aldeko apustua? Talde bakoitzak bere hausnarketa eginda dauka eta baita hori gauzatu ere.

Oinkarrik esaterako, Alazneren hitzetan, orain arte tradizionalarekiko lotura mantendu du beti, orain bien arteko uztarteketa ematen saiatzen dira. Bertan egindako koreografia guztiak euskal dantza tradizionalan oinarritzen dira: "saiatzen gara biak lotzen, ikusleari dantza tradizionala soilik ez eskaintzen. Uztarteketa posible da eta hori azaleratzen saiatzen gara gure emanaldietan".

Alurrek bere aldetik, Elik zehaztutakoaren arabera, atzekoa ahaztu gabe aurrera egin nahi izan dute; tradizioa galdu gabe, aurrera pausua ematea. Hala ere, tradizioak oraindik orain atal garrantzitsua du Alurren baitan. Izan ere, taldea osatzen duten 300 bat pertsona horietatik aparte Alurrek lan hitzarmenak ditu inguruko herri txiki-txiki udalekin. Horrela aipatzen du Elik: "gure irakasleak herri hauetara joaten dira dantza taldeak mantentzera, klaseak eskaintzera. Ez da dena zentralizatu behar. Herri txiki bakoitzak bere bizitza, bere taldea mantendu behar du".

Udaberri Dantza Taldeak bestelako ikusmoldea du. Hala zehazten du, behinik behin, Iratik: "harreman zaila da. Ez da erraza aurrerapenaren eta tradizioaren arteko oreka aurkitzea, ez dantzaren munduan ezta beste esparruetan ere". Udaberrik dantza tradizionala mantentzeko erabakia hartu du. Mutilen faltak tradizionalki hauek betetzen zizuten postuak neskekin osatzera bultzatu ditu. Baina bestetik beti zaindu dituzte pausu eta koreografia tradizionalak.

Garaikidea gustukoa badute ere, eta harekiko errespetua erakusten badute ere, Iratik argi dauka: "Askotan nabaritu izan dugu garaikidea egin nahiak tradizionala ahaztea dakarrela. Garaikidearen sustraiak tradizionalan daude eta tradizio-

nala ongi ezagutu gabe garai-kidera jotzeak funtsik ez duela uste dugu. Nondik zatozen jakin behar da bidean aurrera egiteko, ondoren bide horretan zerbateraino egin nahi duzun aurrera erabaki".

Tradizionala eta garaikidea,

garaikidea eta tradizionala. Iriztiak jasota irakurleak aukeratu behar. Talde bakoitzak hurrengo egunetarako prest dituen emandietara jo eta dantza mota guztiez gozatzeko parada eskainiko du eskualdeak apirila eta maiatzean.

Oinkari Dantza Taldea. "Ari du"

Apirilak 15, ostirala. 22.30.

Leidor Aretoa.

Sarrerak salgai [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net/webgunean)
webgunean.

"Ari du" ikuskizun berri hone-tan, euskal kulturaren hain pre-sente dauden dantza eta eus-kal poesiaren arteko uztarketa izan dute helburu. Juan Kruz Igerabideren ahotsean errezita-tuko diren poesiak, euriak duen erritmoa markatuko dute. Billa-bonako Oinkari Dantza Taldeak osatuko ditu erritmo honetara bere dantzak, bai tradiziozko zuzenean ekarritakoak, baita garaikidetasunera moldatutakoak ere. Dantzek bezala, euriak ere erritmo ezberdinak eskainiko ditu, hala nola, zirimiria, zaparrada, ekaitza... Horixe izan da ikuskizun berri honetan islatu nahi izan dutena, euria hipzide hartuz eta dantzarekin jolastuz. "Ari du".

Alazne Gurrutxaga "Ari du" ikuskizunaz mintzatu zaigu: "Aurreko lana arte, Korrontzi-rekin burututako "Inperuko Hauspoa" arte inguruko jendearentzat egiten genuen lan. Honek ezagutarazteko aukera eman zigun eta orain publikoa zabaldu da. Hori ikusita gure buruarekin zorrotzago aritu gara, emanaldi osatuagoa eskainiz".

Udaberri Dantzari Taldea. VI Dantzari Txiki Eguna eta Erromeria.

Apirilak 16, larunbata. Goizeko

11.00etan hasita. Tolosako
kaleetan barrena.

Erromeria eta afarirako sarrerak
salgai ikatza, Denak, Raku eta
Orbela tabernetan. 16 €.

VI Dantzari Txiki Eguna. Tolosako kaleak Galdakaoko Andra Mari, Hendaiaiko Guria, Atarbiako Mikelats, Gasteizko Eguzkilore, Erreterriako Ereintza eta Hernialde zein Tolosako Udaberriko haurrek alaituko dituzte. Guztira 350 haur, 30 musikari eta 40 begirale eta irakasle arituko dira. Goizeko 11.00etatik eta 40 begirale eta irakasle arituko dira. Goizeko 11.00etatik eta 40 begirale eta irakasle arituko dira. Alde Zaharrean zein San Frantzisko inguruan. Eguerdian Plaza Berrian elkartu eta herriko elkarteetan bazkalduko dute; taldeen eta taldekideen arteko loturak sendotuz. Arratsaldean Emanaldi Nagusia eskainiko da Plaza Berrian, talde bakoitzak bere herriko dantzak eskainiz. Euria eginez gero goizean Hirukideko frontoian eta arratsaldean Zerkausion bilduko dira.

Erromeria. Helduentzako euskal festa. Musika-poteoa 20.00etatik hasita. 21.00etan Zerkausion bildu lagun giroan afaltzeko. Ondoren erromeria Laket taldearen eskutik, Larrain Dantza herrikoa. Jantzi tradizionalak jantzita agertu behar.

Alurr Dantza Taldea. Dantzari Txiki eta Alurr Eguna

Maiatzak 28, larunbata.

Alurrek emanaldiz beteriko hilabeteak ditu apirila eta maiatza. Apirilaren 2an Londresen izan zen bertako Euskal Etxeak gonbidatuta. Zortzi dantzarik Xuletino, Polkak, Agurra, Fandangoa, Arin Arina eta Banakoa eskaini zituzten Ingalaterrako hiriburuan. Bestetik, gurera bueltatuta, apirilaren 9an, Zaldibian ordubeteko emanaldia eskaini zuten 12 eta 16 urte bitarteko 75 dantzarik, bertako dantzariekin batera. Apirilaren 26tik 31ra ordea Galiziar bidaia-turua du Alurr Dantza Taldeak. Kultur trukea izango da honako hau, baliagarria bi kulturek elkar ezagutzeko eta bi herrien arteko kultur harremanetan sakontzeko.

Dantzari Txiki eta Alurr Eguna. Goizean Dantzari Txiki Eguna ospatuko da, inguruko herrietako eta Nafarroa eta Iparraldetiko dantzariekin batera. Arratsaldean, umeentzako festa, musika eta dantzekin. Gauean, emanaldia Ibarako Plazan Alurr Dantza Taldeak dantza eskolako urte lana taula gaineratuz.

Galtzaundi 342
11ko apirilak 15

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGUROS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

**Martin
Eceizabarrena**

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Sendabelarreko ezagutza areagotzeko ikastaroa Anoetan

Inkiszioan naturistek izugarritzko errepresioa jasan zuten arren, gure arbasoengandik datorren sendabelarreko ezagutza belaunaldiz belaunaldi transmititu da. Batzuek besteei –sarritan seme-alabek guraso edo aiton-amonei- ikusiz ikasi dugu kamamila hartzen gorputza asentatzeko, berbenekin enplastuak egiten zauriak garbitzeko,... Ezagutza horiek sakontzeko aukera izango da maiatzak 5 eta ekainak 16 artean Anoetako Hozpel kaleko udal lokalean egingo den ikastaroan. Amaia Baztarrikak gidatuko du Anoetako Udalak antolatu duen irakastaldia.

Igor Mujika

Amaia Baztarrikaren arabera, “inguruan ditugu sendabelarrak eta horiekiko ezagutza izatea garrantzitsua da”. Errezeta guztiakin bezala, ordea, naturak eskainitako sendabi-deekin ere kantitateak neurtu egin behar dira, behar baino dosi handiagoetan hartuz gero arriskutsuak ere izan daitezkeelako. Hala azaldu digu Amaia Baztarrikak: “beren kantitateak di-

tuzte sendabelarrek. Kontua ezagutzan dago. Ezberdina da aspirina bakar bat edo kaxa osoa hartzea. Sendabelarrekin berdin jokatu behar da. Pertsonatik pertsonara ere eragina ezberdina izan daiteke. Batzuei eragin gehiago, besteei gutxiago,... egin diezaieke. Behar baino dosi handiagoe-tan hartuz gero arriskutsuak direlako, badira debekatuta dauden sendabelarrak ere”. Horregatik, “inguruan duguna ezagutzeko eta bere era-

bilpena ikasteko, ikastaro oso aberatsa izango da eskainiko dudana”, Baztarrikak nabarmendu digunez.

Eta ez du arrazoi faltarik. Izan ere, Amaia Baztarrikak eskainiko duen ikastaroan Euskal Herrian bildu daitezkeen 14-15 sendabelarren inguruko ezagutza irakatsiko da. Horretarako, ikastaroko parte hartzaileak bere bizi-tokira ere eramango ditu. Izan ere, bertan sendabelar asko ditu landatuta eta modu

naturalean nolakoak diren erakutsita itxuraz antzekoak izanik ere izatez ezberdinak diren landareak bereizten ikasiko dute bere ikasleek. "Non bildu, nola hartu, nola lehortu,... eta bildutakoarekin zer egin daitekeen erakutsiko diet: ukenduak, infusioak,... Gauza askotarako dira erabilgarriak sendabelarrak: odola garbitzeko, gibela garbitzeko, hesteak garbitzeko,... Azken finean, gure gorputzak orekatzeko dira baliagarriak. Medizina prebentiboa da. Baratza batek ximaurra edo burdina behar badu, behar duen kantitatea bota behar zaio. Gure gorputzarekin ere gauza bera egin behar da".

Gazte nahiz helduak

Amaia Baztarrikaren iritzian, sendabelarreko ezagutza "errekuperatzen ari da. Sendabelarrekin sendatzeko geroz eta kontzientzia handiagoa dago". Industria farmazeutikoak eskainitako aterabideek sendatu baino kronifikatu egiten dutenaren ustea zabaltzen ari da eta, ondorioz, Baztarrikaren iritzian, "jendeak beste aukera batzuk probatzen ditu. Sendabelarrekin milaka urte dararamatzate gure lurretan eta, ondo erabiltzen jakinez gero-norberak zer eta zertarako behar duen-, oso erraza da Euskal Herrian sendabelarrak erabiltzea. Doakoa den zer-

bait da gainera: mendian, zelaietan,... hor daude".

Sendabelarrekin sortzen duten interesaren erakusle da Amaia Baztarrikak bere ikastaroetan izaten dituen ikasleen profila: "20 urte dituztenak nahiz 70 dituztenak izaten ditut ikasle. Hori bai, normalean emakumeak gehiago izaten dira gizonezkoak baino".

Baztarrikak azaldu digunez, sendabelarreko ezagutza izan arren, jakintza horretan sakontzea oso onuragarria da. Eta hala egin du berak ere: amarengandik eta aitarengandik jasotako ezagutzetan sakonduz jarraitzen du Txinako medikuntza biologia aztertuz. "Txinan sikoterapia guztia belarrekin egiten da eta oso ondorio onuragarriak ditu. Esaterako, prostatako minbizia Txinan %1ek baino ez du. Hemengo sendagile talde bat hara joan da eta hango farmazi eta eritexetan

erabiltzen diren botikak (denak sendabelarrekin eginak daude) hona ekarri ditu hango eta hemengo medikuntzaren arteko fusioa egiteko. Orain, horretan gaude lanean", esan digu Amaia Baztarrikak.

Hari beretik tiraz, zera gaineratu du: "eje metabolikoen diagnostikoa eginez gure sintomak aztertzen dira: izerdia, hotza,... noiz egiten den pixa,... Beraz, zein eje metaboliko ditugun desorekatuta ikusten dugu ondoren sendabelarren bitartez sendatzeko". Sendabelarren ikastaroan parte hartuz norberaren gorputza zaintzen eta gure ingurunea gehiago ezagutzen ikasteko aukera ederra dago beraz maiatzean Anoetan. ☺

ZALBIDE

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176




SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



Iñaki Mezquita

Naturako irudien ehiztari eta ikerlea

Iñaki Mezquita Aranburu (Alegia, 1959) argazkigintza eta naturaren maitale amorratua. Legorretako eskolako irakaslea da duela 17 urte. Bakarkako zaletasunak ditu: korri egin, mendian ibili, argazkiak atera eta gitarra jo. Korri egitearena lasai hartu du, baina mendian ibili eta naturako irudien bilduma osatze lanean buru-belarri dihardu.

“Tximeleten atzetik” izeneko liburu mardula argitaratu zuen 2006an eta 2009an, dibulgazio helburuarekin “Gipuzkoako odonatuak” burruntziak eta sorgin-orratzak hobeto ezagutzeko gida argitaratu zuen. Naturaren gainbehera salatzen duten tximeleta eta burruntzien egoeraren berri herritarrei zabaltze lanetan ari da.

Felix Aiestaran

Gitarra jotzen bakarrik aritzen denean gozatu egiten du, baina jende aurrean aritzea ere gustuko du. Abeslariari laguntzen eta taldeetan ere aritua da; Iñakirentzat rock gogorra AC/DC-k egiten duena da, horixe du gustuko.

Tximeleten irudi bilduma handia duzu, ezta?

Hasiera batean, argazkiak era analogikoan ateratzean, diapositibak garesti samar ateratzen zi-

ren. Argazkia atera aurretik ongi pentsatu behar zen. Segurutzik jo behar izaten zen eta ez ateratzegatik bidean irudiak galdu ere egiten ziren. Orain, era digitalean aritzean, argazkiak lasaigo ateratzen ditut. Iragan udan, 14.000 bat ez ote ditudan atera ... Argazki bilduma ikaragarria dut. 15.000 diapositiba inguru izango ditut. Hiru disko gogor beteta ditut (eta horietako bat tera eta erdikoa da!).

Zer dela eta hasi zinen tximeleta irudiak bilatzen?

Beti bakarkako zaletasunak izan

ditut: talde kirolean baino korrika bakarrik aritzea nahiago izan dut, gitarra jotzen bakarrik aritzen naizenean gozatzen dut; lehen kamara eskuratu nuenean natura behatzen eta irudiak hartzen hasi nintzen. Hasieran, edozein natur gairi ateratzen nion argazkia, baina halako batean lagun batek zergatik ez nion gai zehatz bati heltzen aipatu zidan. Egokia iruditu eta halaxe hasi nintzen tximeleten irudiak biltzen, beren edertasuna eta bizitzaren kasualitateagatik. Tximeleta bati argazkia atera eta liburuan espezie arraro bat zela



ikusteak izugarriko ilusioa egin zidan. '88an hasi nintzen tximeleta irudiak ateratzen eta azken urteotan burruntzien argazkiak ateratzen ari naiz.

Nola osatu duzu bilduma?

Liburuetan arakatzuz eta asko ibiliz. Carlos Gomez Aizpurua donostiarraren liburuak aztertu nituen; duela 30 urte ICONAK Madrilera eraman zuen eta gaur egun nire laguna da. Tximeletak naturaren egoera jakiteko adierazle onak direlako dibulgazio lana egiten hasi nintzen irudiak bilduz eta ikerketak eginez.

Tolosaldean 65 espezie bildu omen dituzu...

Bai, Gipuzkoan 98 espezie kontrolatuta ditugu eta horietatik bi heren Tolosaldean agertzen dira. Uzturre oso leku aberatsa da. Gipuzkoan tximeletak mendi tontorretan babestu dira, haran guztiak gizakiak hartu dituelako. Uzturre Gipuzkoako hamar leku hoberenetarikoak da. Hernio pare-pare du, ez da leku kaxkarra...

Gipuzkoa tximeleta aldetik aberatsa al da?

Gure inguruan Nafarroa eta Araba aberatsagoak dira, batez ere bertako ekosistema anitzagoa delako, Pirinioetatik hasi eta Mediterraneo aldeko klima tartea baitute. Gipuzkoa tximeleta aldetik aberatsa da, penintsulako espezie erdiak bertan azaltzen dira. Aniztasun zabala dago, baina tamaina aldetik ez dira oso handiak. Gipuzkoako tximeletak ondo behatu behar dira, bestela euren edertasuna isilean geratzen da. Alegian ere bada toki ezin hobea tximeletentzat, baina AHTaren lanak direla eta txikitzen ari dira, Aldaba alde horretan... Gipuzkoako aire argazkia ikustea ikaragarria da, dena gizakion arrastopean azaltzen baita.

Badira hiri barruan bizi diren tximeletak ere...

Tximeleta batzuei kosmopolitik deitzen diegu, edonon aurkitu baitaitezke. Espezie batzuegokitu egiten dira. Beldarrak direnean landare batez, hogeiez eta badira 150 landarez elikatzen direnak. Hasiera batean, hauek abantaila izan beharko luketela ematen du, baina badira hauetako batzuk arrisku bizian daudenak. 'Aglia tau' izenekoak adibidez, heldua denean baso zaharrak behar ditu eta. Herrietan zabaldu direnen artean asunez elikatzen direnak ere badira. Hirietan hogeit bat espezie badaude.

Gaur egun tximeletekin jarraitzen al duzu?

Ez, orain nagusiki burruntzi irudiak bildu eta aztertzen ari naiz. Burruntziak tximeletak baino adimentsuagoak dira. Euren portaera konplexuagoa da. Tximeletek itzala edo dardara sentitzen dutenean berehala ihes egiten duten modura, burruntziekin ohitzeko hiru ordu egon behar izan dut batzuetan. Burruntziekin behatu egiten gaituzte eta konfiantza har dezakete. Harrapariak dira eta intsektuak harrapatzen dituzte. Oso fama txarra izan dute betidanik, Europa osoan deabruaren laguntzaileak zirela pentsatzen zen: sorgin-orratz deitzen diegu. Burruntziak gurtzat oso onuragarriak dira, guri kalte egiten diguten eltxoen moduko intsektuak harrapatzen dituzte eta.

Ba al dago hauen artean espezie inbaditzaileak?

Burruntzi espezie berriak agertzen dira, baina bertakoak ez dituzte desplazatzen. Baina badira landareen artean hemengoan leku bera hartzen dutenak. Adibide gisa, bada Lea ibaian, Urdabai edo Txingudin arazo larriak

ematen ari den 'Baccharis halimifolia' izeneko landarea. Landare inbaditzaile hau kentzeko programa martxan da. Panpako lore dotore hori ikaragarri zabaldu da, baita 'Budleia' izeneko ere (ibai ertzetan zabaldu dagoen landarea, lore more luzea eta ederra duena).

Tximeletak harrapatu ez eta euren irudia baino ez duzu ehizatzen, ezta?

Halaxe da, bai. Inoiz ez dut horrelakorik egin ezta egingo ere. Gaur egungo bitartekoekin, garai batean tximeletak identifikatzeko aipatzen ziren argudioak bertan behera gelditzen dira, kasu gehienetan.

Aranzadirekin zer nolako elkarlana egin duzu?

Garai batean urrunekoak ikusten nituen Aranzadikoak, nire burua zientifikotzat ez nuelako. Baina gaur egun oso gustura ari naiz beraiekin elkarlanean eta lanak argitaratuz.

Ba al dago ornogaberik arriskuan?

Duela gutxi jaso dut EAEn arriskuan dauden espezieen zerrenda eta bertan ez da ornogaberik azaltzen. Nola da posible? Zantzuak alde guztietatik jaso, baina ez dugu ikasten. Politikariek erantzukizun handia dute, kudeaketa eta jendea sentsibilizatzeko ardura euren esku dago. Alde horretatik, Tolosak bailaran duen lidergoa, sentsibilizazioaz aparte (ikusitako besterik ez dago Tolosak duen tradizioa Naturalia, Zumar-di edo Amalur moduko ekitaldi apartak gauzatuz) ekimen eta ekintza zuzeneko jokabideen sustapen eta zabalkuntzan islatu behar da. Bailara mailako elkarlana da onuragarria eta hori Tolosak indar handia jarri behar du. Potentzialki herri ikaragarria

da ingurumen mailan. Ekimenak, ekintzak, bultzatu behar dira.

Zeintzuk dira ekimen horiek?

Lehenik eta behin, ingurumen mailan dauden lekuen azterketa egin behar da, esku artean zer dugun jakiteko. Ondoren, erabakiak eta neurriak hartu behar dira, ondarearen biziraupenerako. Neurri horiek ezin dira tokian tokikoak izan, elkarlana ezinbestekoa da. Animaliek, landareek ez baitute mugarririk. Egon badaude diru-laguntzak proiektu eta egitasmo horiek burutzeko. Gauza asko egin daitezke, egoerak ez du onartzen lo geratzerik. Ez dut zalantzan jartzen gauzak egin egiten direla, baina konpromisoetan sakondu beharra dago.

Greenpeace eta Adenako kidea zara... Mundu honek ba al du erremediorik?

Bai, kide historikoa naiz bietan. Batzuetan aldaketa azkarragoak nahi ditugu, baina motel bada ere hortxe datoz. Aspalditik, CFCen aurkako kanpaina egin den arren, orain dela gutxi Madrilén 500.000 izozkailu desmuntatuta aurkitu dituzte zabortegi ilegal batean. Milioi eta erdi tona CFC isuri dutela kalkulatzen da. Gas horiek ozono geruza hondatzen dute, baina 25 urte behar dituzte goraino iristeko. Oraingo astakerien ordainak hemendik 25 urte barru pairatuko ditugu. Ikaragarria. Erremediorik? Baietz esango nuke, baina gure jokarea erabat aldatu beharko dugu. Baztertuta egon den arren, gure etorkizun ekonomikoa eta are okerragoa dena, naturaren onerako energia nuklearraren aldarria egiten da, energia garbia dela esanaz. Japoniak mezu bat bidali du. Ikaragarria da. Baina tsunami horren atzetik beste bat etorri da: gezurrez beteta. Ukaezina ukatuz.



Nolako da Tolosaldeko natura- ren osasuna?

Eraikuntza eta industriaren eragina ikaragarria izan da. Gogoan ditut Orian eta Araxesen ikusten genituen apar zuri haiek... Lurzorua oso hauskorra da eta errekueratzea ia ezinezkoa, epe oso luzera begira ez bada behintzat. Horrenbeste urbanizatutako inguruetan santutegi babestuak egiteko joera dago eta horrek arrisku bat zabalitzen du: santutegiak babestu eta beste guztia txikitzearena, alegia. Tolosaldean natur santutegi horiek ere ez daude behar bezala zainduta. Gainera, ezinezkoa da leku babestuen arteko kontakturik gabeko sare bat osasuntsu mantentzea, trukatzeko kromosomikoak galarazten direlako eta populazioak ahuldu egiten direlako.

Intsektuak aztertzean klima alda- keta zantzurik aurkitu al duzu?

Animalien banaketari dago-kionez, batzuk aurrera egiten ari diren bitartean, beste batzuk atzera egiten ari dira. Batzuk klima epelagoaren bila etorri eta beste batzuek hotzagoaren bila

ihes egin behar dute. Euskal Herrian tximeleta dezente daude galtzeko arriskuan, baina bakarra ere ez da azaltzen gobernuaren zerrendetan... Aditu talde horretan entomologorik ez badago, arrisku zerrenda horretan intsekturik ez da azalduko. Hor dago akatsa. Arrisku bizian daude, besteak beste, honako hauek: 'Maculinea arion', 'Maculinea alcon', 'Parnassius apollo', 'Carterocephalus palaemon', 'Lopinga achine', 'Gomphus vulgatissimus', 'Aeshna isocetes', 'Coenagrion mercuriale', eta abar luze bat.

Penintsulan 235 eguneko espe- zie badira eta gauekoak 3.000 ba omen dira...

Gauekoak askoz gehiago dira. Gauekoei sitsak deitzen diegu eta egurra jaten duten kolore marroiko tximeleta itsusizat izan ditugu. Baina badira sitsak egunekoak baino ederragoak eta handiagoak direnak. Europako tximeletarik handiena sitsa bat da: 'Saturnia pyri'. Mundu mailan 120.000 gaueko tximeleta espezie daude. Egunekoak 30.000 izan daitezke.

Tximeletekin trafikatu egiten da. Afrikako erregina batek kapa egi- teko tximeleten 200.000 hegal erabili omen zituen...

Bai, halaxe da. Ez dago urrutira joan beharrik, nonahi ikus daitezke tximeleta kaxak hormetan zintzilikaturik. Ni "hemen nago" esateko elementu bat da. Zenbat eta arrisku handiagoan egon tximeletak balio handiagoa du. 400 tximeleta bidali ohi izan dira Hego Amerikara, handik hona bat bidaltzeko. Harrapatzen dutenek ezer gutxi kobratzen dute, baina trafikatzailerik diru ikaragarria mugitzen dute. Frantzian intsektu enkanteak egiten dira. Internetek tximeleta trafikatzailerik izugarriko bizia eman die. Duela urte batzuk, Alegiako etxe batean, desagertzeaz dagoen 'Morpho retenor' bat koadro batean erakutsi zidaten. Honelako bat etxean izateko arbasoek utzia izan dela adieratzen duen baimen berezia behar da.

'Tximeleten Atzetik' tximeleta liburua 2006an argitaratu ze- nuen...

Momentuan ikaragarriko ilusioa egin zidan, tximeleten inguruan egindako lana islatzen zuelako, baina gaur egun ez nuen 400 orrialdeko honelako libururik egingo, zabalkunderako ez delako egokia. Erakusketa bat esku artean darabilt, eta hemen dibulgazio aldetik jo beharra dago. Horixe egin dut, 'Gipuzkoako Odonatuak' azken liburu honetan. Jendearen aurrean erantzukizuna dugu eta zerbait eraginkorra egin beharra dugu.

Musikan ibilbide luzea izan duzu: Urko, Iñaki Eizmendi, Ima- nol... eta beste hainbatekin aritu izan zara...


Etxean gitarra akustikoarekin bakardadean aritzea gogokoa dudana bezala, jende artean

rock&roll-a partekatzea gustuko dut. Rock gogorra eta ez gaur egun egiten den kafesne hori... AC/DC edo antzekoek egiten dutena gustuko. Oso gazte hasi nintzen Mitxel Longaron tolosar handiarekin. Adiskidetasunaren atea ireki zizkidan musikak. Oso gazte hasi eta oso gazte bukatu nuen talde lanetan. Urte asko pasa eta gero, poesia, ipuin kontaketa, bertsoa uztartzen zituen 'Ahots Bidaztiak' izeneko proiektu ederrean parte hartu nuen, Ekaitz eta Irati Goikoetxearekin batera. Ikuskizunean ikusleek parte hartzen zuten bete-betean, eragile izanik. Proiektu hura bukatu zen niretzat, baina jotzen jarraitzen dut. Egingo nuke bai talde bat, baina bateria jolea behar dugu. Bi gitarra berri erosi ditut. Sua ez da itzali. Irakurleek badakite...

Zein da musikaren egoera?

Esfortzuen kultura desagertzen ari da. Horren ikur nagusia izan nahi zuen 'Operación Triunfo' telebistatik kendu dute, jendeak ez zuelako ikusten. Pentsa! Lokalean saiatzea, lan egitea ez da erakargarria. Bestetik, kontzertu zirkuituak desagertu egiten dira. Talde batek garagardo batzuen truke jo behar duela ematen du... Jendeak zer nahi du? Penalty itxura eginez tranpa egiten duen Cristiano Ronaldo harroputzaren modukoak? Tranpati eta zuriak. Beste balore batzuk behar ditugu.

Zein egitasmo dituzu esku ar- tean?

Erakusketa ibiltari batekin buru-belarri ari naiz. Saiatuko naiz Tolosara ekartzen. Gipuzkoako Tximeleten gidarekin ere ari naiz. Zenbait aldizkarirako artikulua batzuekin ere ari naiz. Bestetik, buruntzien ikerketarekin argazkiak egin eta gozatzen jarraitzeko asmoa dut. 



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Elikagai-segurtasunaren inguruan, maiz uste faltsuak izaten dira (hormonak, gehigarriak, egosketak...) eta ez dira noski arazo arruntak. Elikagai bat kaltegarria ez dela pentsatzea, kontrakoa denean, osasunarentzat arriskutsua bihurtu daiteke, eta bestalde ere, elikagai bat kontaminatuko dela pentsatzeak, horrela ez denean, nahasketak sor ditzake. Kasu gehienetan, interpretazio hauek aspaldiko usteetan dute oinarria.

Koxk! Egiak edo usteak?

Gaur, begirada bat botako diegu mota honetako zenbait gairi.

Arrautza: zalantza gehien sortzen dituen elikagaien artean dago. Jan aurretik garbitzea beharrezkoa al da? Ideia nagusia baiezkoa izan arren, ez da beharrezkoa. Elikagaia hauek, oskolaz daude estalita, eta bere funtzioa agertu daitezkeen patogenoen aurrean babestea da. Baina arrautzak garbitu arren, ezin da baztertu kontaminatuta egotea. Izan ere, arrautzara iristen diren mikroorganismoak 3 jatorri izan ditzakete: kanpoko kontaminazioa (habia, gorotzak...), barneko kontaminazioa (obario barruan) eta prozesu, tresna eta manipulatuzaileen kontaminazioa. Horretaz gain, faktore desberdinak daude mikroorganismoen sarreran eragingo dutenak, adibidez, gordetze tenperatura, adina edo hezetasuna. Zein da berez segurtasuna emango diguna? Egosketa puntu egoki bat izatea.

Ozpina: elikagaiak substantzia azidoekin tratatzean patogenoak desagertzen al dira erabat? Adibidez, antxoak ozpinarekin prestatzen ditugunean? Kasu honetan, kontutan eduki behar dugun arazo bat dago. Inguru azido bat bakterio askorentzat kaltegarri izan arren, arraietan zenbait parasito ager daitezke eta hauek desagertu ahal izateko beharrezkoa da izozte prozesu bat edo egosketa ziur bat jasatea. Ezaguna egingo zaie askori 'aniskis' izeneko parasitoa, bakailao, sardina, antxoa edo izokinean agertzen dena; kasu honetan adibidez, ozpinarekin prestatzeko asmoa badugu (hau da, ondorengo egosketarik gabe), izozte tratamendua oso garrantzitsua izaten da osasunarentzat arriskurik ez dela izango ziurtatzeko (-18ºan 24 orduz).

Elikagaien gehigarriak: batzuk alde, besteak aurka... Ospe txarra duten arren, elikagai batzuetan ezinbestekoak dira. Substantzia hauek, se-

gurtasun frogaz zorrozt batzuk gaintu behar izaten dituzte, osasunerako kaltegarri ez direla ziurtatzeko, hau da, kontsumitzailearentzat toxikoa ez dela ziurtatzeko. Gehigarri hauen erabilera zorrozt dago araututa. Gehigarri bat erabili ahal izateko, derrigorrezkoa da "zerrenda positibo" batean egotea: zerrenda honetan argi eta garbi azaltzen dira zein substantzia erabili daitezkeen eta zein kontzentrazio mailan.

Egia esateko, formulaturik dauden elikadura kodeak izan arren, kasu askotan, etiketan honelako kodeak ikusteak (E-300, E-200...) beti sentsazio arraro edo zalantzarri bat ematen du, ezta?

Egoera honen aurrean, askok eta askok nekazaritza ekologikoa bultzatzen dute, hau da, zomorrotik eta ongari kimikoak ez erabiltzea; baina nekazaritza ekologikoa ez da hori bakarrik: elikagaiak sortzeko prozesu naturalak eta materiala berriztagarriak erabiltzean

ere oinarritzen da.

Gai honen inguruan ikerketak egin dituztenen artean ez dira ados jartzen osasunarentzat hobea den ala ez baieztatzeako orduan, baina garbi dago kontsumitzaile eta ingurugiroarentzat nekazaritza mota honek abantaila batzuk ematen dizkigula. Ondoren, zenbait aipaturiko ditugu:

- Lurra hobetu eta babesten du.
- Erregai fosilen erabilera gutxitzen du (erregai hauen hornidura mugatua denez, beraien prezioa igoko balitz, elikagaiena ere igo egingo litzake).
- Eta noski, naturarekiko errespetua handiagoa da: zomorrotik eta ongari sintetikoak ez erabiltzeak, kutsadura gutxitzen du.

*Irakurle taldea,
Maiatzeko tertulia*

Eguna: maiatzak 5, osteguna

Ordua: 19.30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua:

*“Ordu bietan
Frontoian”*

Jokin Ansorena bertan izango da

“Intimotasunean nolakoak ga

Apirileko Galtzaundi Irakurle Taldean ‘Haragia’ liburua aztertzeko Eider Rodriguez idazlea bera izan da Tolosan. Liburua argitaratu zenetik lau urte igaro badira ere liburuaz hitz egin du bertaratutakoekin. Honetaz gain, literatura, hizkuntza, idazketa prozesua eta abar luze bat ere izan ditu mintzagai.

Naiara Roldán de Aránguiz

‘Haragia’

“Sufritzen duen gizaki oro da haragia”, Elisabeth de Fontenayren aipua Eider Rodriguezen ‘Haragia’ ipuin liburuko sentimenduekin bat dator. Bertan, sufritzen duten pertsonaiak agertzen dira edota sufritzen ez dutelako sufritzen dutenak. Oretako idazleari “erortzen den jendea” interesatzen zaio: “politikoki zuzena den bidetik joan ezin dena”. Norbanakoa intimotasunean dagoenean aztertzea gustuko du. “Politikoki zuzena den begia begira ez dugunean nolakoak garen interesatzen zait” adierazten du familiei erreferentzia eginez: “jatetxe batera bazkaltzera goazenean badirudi familia guztiak perfektuak direla, inoiz ez dut ordea familia normalik ezagutu”.

Idea honen harira bi ipuin mugarri ditu ‘Haragia’ liburua: hasierakoa liburuari izena ematen diona eta amaierakoa, ‘Errautsak’ izenekoa. Kontzeptu beraren heriotza eta bizitza islatzen dituztenak. Liburua

osatzen duten 12 ipuinetan iluntasun bera ageri da, gaur egungo bizimoduaren deskribapen gordina.

Bigarrena, erreakzio argitalpena

‘Haragia’ Eider Rodriguezek argitaratu zuen bigarren liburua izan zen, ‘Eta handik gutxira gaur’-en ostekoa eta ‘Katu jendea’ren aurrekoa. Liburutik liburura egoera aldaketa nabari du Eiderrek: “lehen liburuarekin idazleak ez daki zer aurkituko duen; nahigabeen iristen gara idazle asko publikatzera, magia dauka lehen liburuak, onerako zein txarrerako. Behin publikatuta ikara sentitu nuen, publikoak nik idatzitakoa irakurri behar zuen, inkontzientzia puntu bat dago lehen liburuan”.

Lehen liburua idazterako orduan kritika oso eskuzabala izan ohi da egile nobelekin Eiderren ustetan, birjina denarekin, kutsatua ez dagoenarekin. Bigarrena-ekin kontrakoa gertatzen omen da, langa batetik gorako lana espero da, egilea nobela, berria

izatetik ‘profesionala’ izatera igarotzen baita.

Eiderrek azaldutakoaren araber, bigarren liburuan inkontzientzia desagertu egiten da: “askoz planifikatuagoa da dena”. ‘Eta handik gutxira gaur’ liburuarekin idazleari emakumezkoen literatura egitearen etiketa jarri ziotenez ‘Haragia’rekin erreakzioa izan zuen, lehen ipuineko protagonista gizonezkoa aukeratu. “Erreakzionarioa izan nintzen, askoz gehiago preparatua nuen”.

Eleberria egitea baztertzen ez duen ipuin idazle honek, istorioen egiturekiko lilura du. Hau agerian geratzen da ‘Salgai’ ipuinean. Bertan bere bizimoduarekin konformagaitz den emakumeak, luxuzko arropa dendetatik dendara egiten du salto, Donostiako Miramonetik Uliara bitartean. Azpimarragarria da baita ere ‘Nahiago nuke gezurrik ez esan’ ipuineko egitura, modu naturalean heriotzaz mintzatzen den ipuin erabat dialogatua. Hala ere,

Eiderrek berak esan duenagatik, lehen liburuan egitura oso anitzak erabili bazituen ere, liburutik liburura murrizten joan da: “istorioa lehenetsi nahi izan dut egitura, andamiajearen aurretik”.

Idazketa prozesua eta hizkuntza

Idazteko prozesuari dagokionean oso poliki idazten duela aitortu du hutsune afektiboez aritzen den egile honek: “ipuin bat josteko normalean hilabeteak behar izaten ditut. Badira egunak paragrafo bat idazten dudana, hurrengoan esaldi bat... Lehen bertsioak oso zikin egoten dira; musika eta instrumentu gehiegi izaten dute”.

Eiderrek zirriborroekin egiten du lan, amaierako ipuina erdira murrizteraino: “denbora asko ematen dut fintzen, edertzen; soberazko adjektibo, deskribapen eta pasarteak kenduz. Propio eginda dago hitz gutxirekin gauza asko esatea”. Honekin, bilatzen duena gustuko duen erritmoa topatzea da, bere gorputzarekin bat datorren erritmoa, alegia.

Bestalde, istorio sortzaile honi ez dio gehiegi arduratzen hizkuntzak: “ni ez naiz batere ederzalea hizkuntzarekiko; hitz gutxirekin esan nahi izaten dut esan beharrekoa”. Are gehiago, honela zehazten du berak: “nire hizkuntza maite dut baina



Eider Rodriguez "aren interesatzen zait"

idazteko garaian tresna bat baino ez da'.

Erabiltzen dituen kontzeptuak gauza konkretuak izaten dira: "abstrakzioarekin *handicap* bat daukat, asko kostatzen zait gauza abstraktuei buruz hitz egitea. Erabiltzen ditudan kontzeptuak eta konparaketak mundu lurtarrarekin dute harremana". Konparazioak egiterako orduan gainera Eider Rodriguezen nahia atzean ideologia bat zehaztea da; azpian dagoena kontatu behar

du gaur egungo konparazio edo metafora batek bere ustez.

Istoriaok sortzeko garaian inspirazioa eta ideiak toki anitzetik eskuratzen ditu idazleak: "telebistatik, bizilagunei begira, lagunei entzunda, iraganetik, proiektioetatik, beldurretatik, entzundako esaldi batetik...". Idazle guztiontzat autobiografia harrobi garrantzitsua dela aitortzen badu ere portzentajea garrantzitsua ere ez dela zehazten du: "parte klabea kenduz gero, portzentajeak ez du balio egia jakiteko".

Istoriaa garatzeko orduan ideia 'koarentenan' izaten du; buruan mantenduz gero, forma emanez, eskuz idazten hasteko. Ordenagailuan idazten hasi aurretik, "eskema zurrun-zurruna" (elkarrizketak, denborak, estruktural, pertsonaiak, akats, bertuteak...) sortzen du Eiderrek.

Politika eta literatura

'T'es très belle' ipuina, Korsika eta Euskal Herriko egonei aipa-

men egiten diena, abiapuntu izan du Eiderrek literaturaz eta politikaz mintzatzeko: "asko arduratzen nau politikaz nola hitz egin, oso zaila da ezkerreko politikaz hitz egitea. Literatura-politika binomioa ez dago modan. Zailtasuna ez da idaztea, sinesgarritasuna izatea baino. Lexikoak berak bere zailtasuna du".

Nederlanderara itzulia

Zirimiri Prest argitalpenaren bitartez 'Emekiro' liburuan euskal sei idazle emakumezkoen ipuinak nederlanderara itzuli eta Holandan argitaratu berri dira. Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Karmele Jaio, Kristina Goikoetxea eta Jasone Osororen lanekin batera Eider Rodriguezena jasota agertzen da 'Emekiro'n. Aurkezpena Amsterdamen bertan burutu, bertakoei euskara belarriratu eta txalo zaparrada jaso zuten. Bertan liburu ugari saldu eta horrek erakutsi zion Eiderri zein kultura diferentetan bizi garen, zenbat irakur daitekeen herrialde batean eta bestean.

Hala ere, Eiderren kezken barruan ez da irakurlego kopurua kokatzen: "ez nau gehiegi kezkatzen jendeak ez irakurtzeak. Gehiago kezkatzen nau jendearen pasibotasunak, ez literatura arloan. Nire jorrala ez dut hortik ateratzen. Konforme nago dugun irakurlegoarekin".

Galtzaundi 342
11ko apirilak 15

Errotulazioa & inudía
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar baliara 25, 1-04 atea
20271 Irua (Gipuzkoa)

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**
N. D.G.S. J.1759

- Bizi-asegurua
- Kotxe-asegurua
- Istripuak
- Gaisotasunak
- Ospitalizazioak
- Subsidioak
- Lan-istripuak
- Enpresa txiki eta ertainak
- Erantzukizun zibila
- Etxe-asegurua
- Denda-asegurua
- Erretiroak
- Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

01001001
00111100
00111100
00111100

Tolosa Bit
Informazioa Zertifikatua
Ordinagailuak eta konpainiak
Egitea eta jarduera erretatua
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

irakurri entzun Ikusi

Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak

Eva García Magriñá

Gipuzkoa osotik Zizurkilgo Fraisoro Etxera ezkondu gabeko ama izatekotan biltzen ziren emakumeen historia kontatzen du batetik eta, bestetik, bertan jaio edo tor-nuetan, eliz atarietan, bide bazterren batean edo etxe bateko atean abandonaturik utzia bertara biltzen zituzten haur jaioberriena. XX. mende osoan Zizurkilgo Fraisoro Etxea izan zen ama eta haur horiek guztiak bildu eta irtenbidea eskaini ziena.

Gure negu hotzak
Izate

Izate taldeak bere azken lanaren emaitza aurkeztera dator "Gure negu hotzak", 3 urtez konposaketa eta grabaketa landu ondoren. Donibane - Ziburuko laukote rockeroak auto-ekoizpena eta musika librearen ildoak segitu du. 12 kantu berriz osatua, erritmo indartsu, gitarra kementsu eta ahots goxo eta bortitz batzuen bidez. Hitzak Odei Barroso bertsolariak, Xabi Biscay kantariak eta Otalazt olerkariaren eskutik idatziak.

Artalde
Asier Altuna

Laburmetraia. Kimuak. Hirian galduta ibiliko da artaldearen bila. Haren deiek pertsona batzuen arreta erakarriko dute eta atzetik joatea erabakiko dute.

hitzorduak

Apirilaren 15etik maiatzaren 6ra bitarteko

Ikuskizunak

"Xentimorik gabe...". Euskerenea ekimena. Apirilaren 15ean, ostirala. Ramon Agirre eta Inazio Tolosa. Tolosako Kultur Etxean, 20.30ean.

Aitona Matias. Tetare Nu (Catalunya). Apirilaren 16an, larunbata. Topic Aretoan, 18.30ean.

Gipuzkoako Gorren Elkarteak antolatutako jaialdia. Apirilaren 16an, larunbata. Leidor Aretoan.

Tolosa Kantari. Apirilaren 30ean, larunbata. Agirre doktorearen plazan (Tontokale), 12.00etan.

Azoka

Tolosako Azokak + Kilometro 0 ekimena. Apirilaren 16an, larunbata. Tolosako Zerkausian.

Erakusketak

Frontoi baten hastapenak. Apirila amaiera bitartean, Fronton kafetegian. 35 argazki zaharrek osatzen dute, gehienak argitaragabeak. Andia Elkarteak antolatuta.

Naroa Armendariz. Maiatzaren 7a bitartean. Aranburu Jauregia. Pintura.

Boga Berria. Emakume Arraunlarien Argazkiak. Apirilaren 23a bitartean. Aranburu Jauregia.

Colorin. Txotxongilo erakusketak. Topic-en.

Jose Benito Ruiz. Apirilaren 29tik aurrera. Naturaldia ekimenak antolatutako argazki erakusketa. Aranburu Jauregia.

Kontzertuak

Arimaz taldearen kontzertua. Apirilaren 16an, larunbata. Tolosako Santa Klara komentuan, 20.15etan. Parte hartzaileak: Arimaz kamera orkestra (hari taldea, bi tronpa, bi oboe, fagot eta klabearekin), Santa Cecilia abesbatza, Arantza Etxabe, Omar Bartolome, Iñigo Vilas, Ricardo Salaberria eta Kepa Martínez de Albeniz.

Tolosako Musika Bandaren Pazzo Kontzertua. Apirilaren 16an, larunbata. Tolosako Zerkausian, 19.00tan.



Dantza

Ari du. Apirilaren 15ean, ostirala. Oinkari Dantza Taldea. Tolosako Leidor Aretoan, 22.30ean. 10 euro.

Dantzari Txikia Tolosan. Apirilaren 16an, larunbata. Udaberri Dantzari Taldeak antolatuta. Goizeko 11.00tan hasita.

Erromeria. Apirilaren 16an, larunbata. Udaberri Dantza Taldeak antolatuta. Helduentzako euskal festa. Musika-poteoa, trikitilari, dultzainero eta txarangak alaituta. 21.00 Zerkausian bildu, afari herrikoia. Erromeria Laket Taldearekin eta amaitzean Larrain dantza herrikoia. Sarrerak salgai 16 eurotan Ikatza, Denak, Raku eta Orbela tabernan. Jantzi tradizionalekin jantzita agertzea eskertuko da.



Kop eta Governors. Apirilaren 15ean, ostirala. Tolosako Bonberenean.



Keiran. Apirilaren 16an, larunbata. Tolosako Bonberenean.

Haurrak

Energia berriztagarriei buruzko tailerra. Apirilaren 26an, asteartean. Tolosako Haur Liburutegian, 12.00etan. 8-14 urte bitarteko haur eta gazteentzat.

Irurako kirol astea

Apirilak 15, ostirala. 19.15ean. Pilota partidak frontoian. 4 1/2an Chaffee-Bengoetxea VII. Eskuz binakako txapelketa Capellan-Eulate / Koka-Lasa III

Apirilak 16, larunbata. 10.00. Herriko plazatik abiatuta Mendi Irteera (Loatzo-Uzturre). Ondoren bazkaria Zarretxean. Bazkarirako txartelak erosi behar dira (15 €) Zarretxean apirilaren 14a baino lehen. 17.30. Sokatira ikuskizuna eta haurrentzat Herri Kirolak (xiba) frontoian.

Apirilak 17, igandea. Bailarako II. Kross Herrikoia. 10.30ean (aurre benjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak) eta 11.30ean (kadeteak eta helduak). Izen ematea. Dohainik. kirolak@gmail.com e-postara datuak (izen-abizenak, jaiotze data eta herria) bidaliz edo irteeran.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharrekiko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuertarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharrekiko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Elektromekanikako langilea	2011/05/02	250
CNC bidezko prestaketa eta progr. fresagailuan (Fagor)	2011/05/04	46
Datu baseen elaborazioa (Access)	2011/05/04	50
Ingeles teknikoa	2011/05/04	40
Elikagaien Manipulatuzaile Txartela	2011/05/05	7
Ordenagailua. Inguru eta Mantenua.	2011/05/09	40

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 15

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Larunbata, 16

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Igandea, 17

Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Astelehena, 18

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Asteartea, 19

Ugarte M^oT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Asteazkena, 20

Olarreaga I.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Osteguna, 21

Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Ostirala, 22

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Larunbata, 23

Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

Igandea, 24

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Astelehena, 25

Bengoetxea E.
(Nagusia, 7)
Tolosa

Asteartea, 26

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Asteazkena, 27

Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Osteguna, 28

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Ostirala, 29

Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	943 652 339	943 672 932
Baliarrain	geriatrikoa	943 675 858
Medikua	943 889 003	943 650 016
(asteazk.)	Udaltzaingoa	639 352 156
Berastegi-Elduain	Ur eta Argia (Tolargi)	943 670 325
Medikua	943 683 361	112
Bidegoian	Ur zerbitzuak (aberiak)	943 672 536
Medikua	943 681 134	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	lurreamendi egoitza	943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	943 653 329	
Irura	Tolosa Gasa	
Osasun zentroa	943 690 720	943 682 077
Tolosa	Lizartza	
Anbulatorioa, Iarriald.	943 650 931	943 655 595
San Esteban, hitzordua	943 006 800	
	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 342
11ko apirilak 15



SANTA
LUZIA
GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA



- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

EXPRES ESTUDIOA

- 3 argazki akordeoi eran 15x15
- Anpliazioa 30x40

69€

ESTUDIO BASIKOA

- 12 orriko albuma
- 10 oroigarri diptiko
- Anpliazioa 30x40

169€



www.ikatz.es



Jaunartzeak

FOTO IKATZ ORDIZIA - joxe miguel barandiaran 1 - ORDIZIA

tel. 943 027 435

SUPER EKO

SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa



BATU GAITEZEN

GIPUZKOAK AURRERA EGITEKO



www.gipuzko.com

HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 EGUN behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 MILIOI

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €

kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 GAUZA

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoltzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermarekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

25 urte
TOLOSAN

